



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 117. INFORMAZIO BULETINA

> 2016ko Abendua



Fondo Europeo de  
Desarrollo Regional (FEDER)  
*"Una manera de hacer Europa"*

Eskualde Garapenarako  
Europar Funtza (EGEF)  
*"Europa egiteko modu bat"*

GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > Donostiak Europako Kultura Hiriburu izan den urtea amaitu du

Itxi du Donostia 2016k Europako Kultura Hiriburu izan den urtea, hiriak, duela bost urte horretarako hautatu zutenean, Europako agintarien aurrean gauzatuko zuela hitzemandako kultura-proiektua burutu ondoren.

Europako kultura eta sorkuntza arloak sustatzeko Creative Europe programaren zuzendari Karel Bartak-ek goraiatu egin du Donostiak aurkeztutako "Elkarrekin bizitzeko Kultura" proiektuaren helburuak bete izana. 2017ko udaberrian emango dute jakitera ebaluazioa, Europa 2017ko kultura-hiriburu berriei lekukoa pasatzeko ekitaldi ofizialean. Aarhus (Danimarka) eta Pafos (Zipre) izango dira 2017ko kultura-hiriburuak.

Zenbait gertaera medio gorabeherak izan ditugu, tartean diru-sarreraren aurreikuspena erdira murriztu zuen krisialdi ekonomiko sakona, baina hala ere, Donostia 2016k osatu du urtea, elkarte, kultura-eragile, enpresa pribatu eta herritarren inplikazioari esker.

"Elkarrekin bizitzeko Kultura" proiektua Donostian eta inguruko lurralde osoan bizikidetzarako kultura sustatzeko sortu zen, baina baita Europarentzako erreferentzia izateko ere. Milaka pertsonak hartu dute proiektu kolektibo honetan parte, modu askotan parte hartu ere. Ikuskizun eta kontzertuetako ikusle huts izan dira batzuk, eta inplikazio sakonagoa izan dute beste batzuek, modu askotan: kultura-proiektuak proposatu eta gauzatu eta hautatu dituzte, gizarteratzeari edo kudeaketari lotutako arloetako prestakuntzan parte hartu, elkarteak eta enpresa-proiektuak garatu eta elkarrekin bizitzeko kulturaren parte izan dira.

*Informazio gehiago:*

<http://dss2016.eu>



### > EGIF Euskadin duen jarraipenarako batzordeak bigarren bilera egin du

Azaroaren 29an egin zuten 2014-2020 aldirako Europako Gizarte Funtsaren (EGIF) Euskadiko Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordearen bigarren bilera.

Batzordeak jorratutako gai nagusien artean izan ziren Programa Operatiboaren harira hautatutako jardueren azterketa eta berrikusketa eta programaren ebaluazioari eta jarraipen estrategikoari lotutako kontuak. Programa Operatiboaren egoeraz eta jardueren garatze-mailaz ere aritu ziren Batzordearen bileran.

*Informazio gehiago:*

<http://www.lanbide.euskadi.eus/fondo-social-europeo/-/informacion/fondo-social-europeo/>



## KOHESIO-POLITIKA

### > Europako ekonomiak 130.000 milioi euro jaso ditu Europako Egitura eta Inbertsio Funtsetatik

Europako Batzordeak Europako Egitura eta Inbertsiorako (EEI) bost funtsen eraginaren azterketa jasotzen duen txosten bat argitaratu du lehen aldiz. Honako hauek dira bost funts horiek: Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF), Europako Gizarte Funtsa (EGIF), Kohesio Funtsa (KF), Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF) eta Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsa (IAEF).

2015 amaieran, 274.000 enpresa ziren EEI funtsen 2014-2020rako programazioaren harira laguntza jasotakoak. 2,7 milioi pertsonak jaso zituzten laguntza lana aurkitzeko edo gaitasunak garatzeko; nekazaritza-lurretako 11 milioi hektareatako biodibertsitatea hobetu zen eta milioi bat proiektu finantzatu hautatu ziren, guztira ia 60.000 milioi euroko balioarekin.

Batzordearen txostenak erakusten du orduetik (2015) orain arte (2016), inbertsioak bizkortu egin direla. Zehazki esanda, zenbateko hori bikoiztu egin da bederatzi hilabetez, eta 2016ko udazkenean ia 130.000 milioi euro zeuden inbertituta (EEI Funtsen zenbateko osoaren % 20) enpresa txiki eta ertainetan, ikerketan, banda zabalean, energiaren eraginkortasunean eta EBren hazkunde eta enplegurako estrategiaren lehentasunetan oinarritutako milaka proiektutan. Inbertsio Planaren helburuen arabera, finantza-tresnen erabilera bikoizteko xedea ia lortuta zegoen 2015eko amaieran.

Txostenaz gain, Batzordeak kohesioari buruzko datu irekien plataformaren bertsio eguneratua argitaratu du eta atal berriak ditu orain EEI funtsen errendimendua erakusteko eta helburuak zenbateraino betetzen diren neurtzeko.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/how/strategic-report/esif\\_annual\\_summary\\_2016\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/how/strategic-report/esif_annual_summary_2016_en.pdf)



#### > Urteroko EGEF Espainian topaketak izan dira

Abenduaren hasieran izan ziren Madrilen Eskualde Garapenerako Europako Funttsaren (EGEF) urteroko topaketak. Han izan ziren Europako Batzordeko eta Estatuko Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioko ordezkariak.

2014-2020 programazio-aldiko zenbait alderdi jorratu zituzten; hala nola Bitarteko Erakundearen izendapena, gauzatzearen aurrerabidea eta lehen lorpenen estimazioa, ex ante baldintzak betetzea, RIS3 Programa Operatiboak gauzatzean, finantza-tresnak eta EEI Funttsen osagarriak abian jartzea eta DUSI estrategiak abian jartzea, besteak beste. 2007-2013 aldiaren itxierari lotutako alderdiak ere landu zituzten.

*Informazio gehiago:*

<http://www.dgfc.sepg.minhap.gob.es/sitios/dgfc/es-ES/opr/fcp0713/gs/feder/Paginas/Inicio.aspx>

#### > Europako Eskualde Politika eta Funttsen urteroko ekitaldia egin dute

Azaroaren 24an eta 25ean Madrilen izan zen Espainian Eskualde Politikaren eta Europako Funttsen berri emateko urtero egiten den ekitaldia. Finantzaketan Europak parte hartuta garatzen diren proiektuak hedatzea izaten du ekitaldi horrek helburua. Programa Operatiboetako 22 proiektu aurkeztu zituzten guztira, sailetan banatuta; adibidez hauetan: berrikuntza, ingurumena, IKTak, tokiko eta hiriko garapena...

Aldi berean, ekitaldi horren harira, zenbait mahai-inguru ere antolatu dira eta unibertsitateko adituek hartu dute parte garapen iraunkorrari, hiri-plangintzari eta hazkunde jasangarriari lotutako gaiak eztabaidatzeko.

Europako Batzordeak ekitaldi hori egin izana baliatu du Europako hurrengo Kohesio Politikaren plangintza egiteko lanak abiarazi dituztela jakinarazteko. Europa 2020 Estrategiaren ondorengo ia izango da.

*Informazio gehiago:*

<http://www.dgfc.sepg.minhap.gob.es/sitios/dgfc/es-ES/opr/fcp1420/c/ac/aa/Paginas/ActosAnualesAutoridadGestion.aspx>

<http://www.dgfc.sepg.minhap.gob.es/sitios/dgfc/es-ES/Paginas/SeminarioActuAnualFEDER2016.aspx>



### > Etxepare Euskal Institutuak kanpoko lankidetzak kulturalerako Europako estrategia eratzeko lanetan hartuko du parte

Euskadik Europar Batasunerako duen ordezkaritza eta Etxepare Euskal Institutua ekainetik ari dira elkarrekin lanean Europako kultura-erakundeek eta Europar Batasuneko Kulturaren Institutu Nazionalen sareak (EUNIC) kanpo-lankidetzarako Europaren estrategia diseinatzeko eta gauatzeko funtsezko eragile gisa dituzten gaitasunak defendatzeko.

Europar Batasuneko Ministroen Kontseiluan aurkeztu zuten eguneko lana azaroaren 21ean eta 22an eta harrera ona izan zuen proposamenak. Gai honen inguruan Hezkuntza eta Kulturako Ministroen Kontseiluak hartu duen jarrera positiboak esan nahi du EUNIC izango dela eta, beraz, EUNICEko kide den Etxepare ere bai, kanpo-lankidetzarako Europaren estrategia diseinatzeaz eta gauatzeaz arduratuko den erakundeetako bat.

Datozen asteetan jarriko da lan-prozesua abian eta Etxepare Institutuak parte-hartze aktiboa izango du eta prozesua burutzeko, ekintza-plan bat aurkeztuko dute 2017ko lehen seihilekoan.

*Informazio gehiago:*

<https://www.poctefa.eu/convocatorias/2a-convocatoria/informacion-sobre-la-convocatoria/>



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > Europar Batasunaren 2017rako aurrekontua onartu dute

Azaroaren erdialdean lortutako akordioa onartu ondoren, Europako Kontseiluak eta Parlamentuak behin betiko oniritzia eman diote abenduan Europar Batasunaren 2017ko aurrekontuari.

2017rako onartutako aurrekontuan 157.860 milioi euro daude konpromisoetara bideratuta eta 1.100 milioi euroko zenbatekoa izango da ustekabeko beharrak asetzeko. 134.490 milioitan finkatu dituzten ordainketak; hau da, 2016ko aurrekontuan baino % 1,6 gutxiago.

Hazkunde ekonomikoa eta enpleguaren sorkuntza sustatzera 21.300 milioi bideratzea erabaki dute 1a azpiizenpean (Lehiakortasuna hazkunde eta enplegurako). 2016koarekin alderatuta, % 12 handiagoa izango da zenbatekoa. Aurrekontuan kapitulu honetan sartzen dira "Erasmus +" -% 19 igoko da, 2.100 milioi euro- eta Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtsa -% 25 igoko da, 2.700 milioi euro izango dira-.

2017rako aurrekontuan gazteei lana aurkitzen laguntzeko Gazteen Enplegurako Ekimenerako 500 milioi euro ere sartuta daude. Era berean, esne-ekoizleei eta abeltzaintzako beste sektore batzuei laguntzera beste 500 milioi bideratzea erabaki dute.

*Informazio gehiago:*

<http://www.consilium.europa.eu/es/policies/eu-annual-budget/2017/>



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > **EBk hiri-garapen jasagarriari eginiko ekarpena (Panorama aldizkaria, 59. zk.)**

Gai nagusia Europar Batasunak Quiton (Ekuador) izandako Habitat III batzarrean izandako parte-hartzea da. Hiri-garapen jasagarriari lotutako mundu oso esperientziak partekatu zituzten batzarrean.

Ale honek, besteak beste, 2016ko lorpenak ebaluatzeko eta 2017rako eskualde-politikak dituen erronkak azaltzeko Corina Crețu komisarioari eginiko elkarrizketa eskaintzen du; baita Eskualdeen eta Hirien Europako Asteari eginiko erreferentziak eta 2007-2013 finantzaketa-aldiaren atzera begirako ebaluaziotik ateratako ondorio nagusiak ere. Azkenik, eskualdeei eskaintako atalean, Frantziako Grand Est eskualdearen aurkezpena dago jasota hango presidenteari eginiko elkarrizketa baten eta egin berriak dituzten proiektu arrakastatsu batzuen azalpenaren bidez.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag59/mag59\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag59/mag59_en.pdf)

### > **Europako Gizarte Funtsak (EGIF) 2014-2020 aldian diruz zer gastu lagun ditzakeen zehazteko Agindua**

Egitura eta Inbertsio Funtsei buruzko 1303/2013 Erregelamenduaren (EB) 65.1 artikulua ezartzen du diruz zer gastu lagun daitezkeen zehazteko, arau nazionalak hartuko direla oinarri gisa, baldin eta Erregelamendu horretan edo funtsei dagozkien arau espezifikoetan eta horietan oinarrituta, arau espezifikoak ezartzen ez badira behintzat.

Hala, eta aipatutako xedapen horren babesean, Europako Gizarte Funtsak Espainian diruz laguntzeko gastuen inguruko Agindua argitaratu da. Aginduan daude jasota, diru-laguntzako emateko irizpide orokorrekin batera, gastuek finantzaketan Europako Gizarte Funtsaren laguntza jasotzeko bete behar dituzten irizpide espezifikoak eta hala dagokionean, Gazteen Enplegurako Ekimenari lotutakoak ere bai.

*Informazio gehiago:*

<http://www.boe.es/boe/dias/2016/12/21/pdfs/BOE-A-2016-12117.pdf>





### > **INTERREG EUROPE proiektuen autoebaluaziorako web-tresna**

Interreg Europa programaren hurrengo deialdia 2017ko martxoaren 1etik ekainaren 30era artekoa izango da. Deialdi horri begira, programaren kudeaketaz arduratzen den Agintaritzak autoebaluazioa online egiteko tresna bat jarri du abian.

Online tresna horri esker, edozein hautagaik begira dezake bere proiektuak eta/edo ideiak zer baliozkotasun eta garrantzi duen.

Horrez gain, eta hautagai den ideiak/proiektuak online autoebaluazioa gainditzen badu, Interreg Europe programak, proiektuari buruzko feedback pertsonalizatuagoa eskatzeko aukera ere eskaintzen du.

*Informazio gehiago:*

<http://www.interregeurope.eu/self-assessment/>

### > **Eskualdeen eta Hirien 2016ko Europako Astearen web-reportinga (Eskualde eta Hiri Politikaren Zuzendaritza Nagusia)**

Eskualdeen eta Hirien Europako Astearen antolatzaileek ekimen horren jarduera-txostena online argitaratzeko erabilitako proiektu pilotua.

*Informazio gehiago:*

<http://cor.europa.eu/ewrc2016>



### > **Diplomazia eta Lurraldeak Liburu Zuria (Kanpo Gaietako Ministerioa, Frantziako Gobernu)**

Kanpo Gaietako eta Nazioarteko Garapenerako Ministerioak hala eskatuta, prestatutako dokumentuak Estatuko eta tokiko agintarien arteko elkarlana hobetzeko 21 proposamen zehatz ditu jasota, kanpo-ekintzak eta elkarlana eraginkortasun handiagoz gauzatzea lortze aldera.

*Informazio gehiago:*

<http://www.diplomatie.gouv.fr/fr/politique-etrangere-de-la-france/action-exterieure-des-collectivites-territoriales/ressources-et-bibliotheque-de-l-aect/>



## EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **SUDOE 2014-2020. Europako Hego-mendebaldeko Espazioko lurraldeen arteko lankidetzarako programa. 2016ko deialdia ([+info](#))**
- **Urban Innovative Actions (UIA) delakoaren 2016ko deialdia. ([+info](#))**
- **URBACT Jardunbide egokien deialdia ([+info](#))**
- **CREATIVE EUROPE. Bideo-joko europarrak garatzeko laguntza, 2017 ([+info](#))**
- **ERASMUS+ programa. KA3 funtsezko ekintza. Goi mailako hezkuntzarako jakintza-tresnak: U-Multirank ([+info](#))**
- **ERASMUS+ programa. KA3 funtsezko ekintza. Politiken erreformari laguntza. Berrikuntza politikorako ekimenak. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan etorkizuneko elkarlana garatzeko Europako proiektuak ([+info](#))**
- **HORIZON 2020. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. Deialdiak: ICT-32-2017(IA), ICT-31-2017(IA), ICT-40-2017(CSA), ICT-14-2016-2017(IA), ICT-41-2017(CSA), ICT-15-2016-2017(IA), ICT-20-2017(RIA), ICT-17-2016-2017(RIA), ICT-16-2017(RIA), ICT-11-2017(IA), ICT-33-2017(CSA), ICT-32-2017(CSA), ICT-23-2017(IA), ICT-31-2017(CSA), ICT-30-2017(CSA), ICT-28-2017(CSA), ICT-30-2017(IA), ICT-05-2017(RIA), ICT-27-2017(PCP), ICT-23-2017(RIA), ICT-31-2017(RIA), ICT-30-2017(RIA), ICT-25-2016-2017(IA), ICT-27-2017(IA), ICT-11-2017(CSA), ICT-25-2016-2017(RIA), ICT-05-2017(CSA), ICT-27-2017(RIA), ICT-39-2016-2017(IA). ([+info](#))**